

MUTIL ZAR

Lenengo egintza

Lenengo irudia

MAI KRUX: Etorriko dala esan du behintzat eta...
MIEL MAI: Baldinbait ere etorriko al da. Aza-salla jorratzeko utzita etorri naiz ta...
MAI KRUX: Ni berriz lixiba egosten utzita.
MIEL MAI: Horrela bagaude, gure baratzako barekukulluak ez dute egun txarra izango.
MAI KRUX: Etorriko dala esan du behintzat eta...
MIEL MAI: Baldin bait ere etorriko al da.

Bigarren irudia

ON PATRI: Aspaldian al zeudenten zai?
MAI KRUX: Ez jauna, etortzia egin degu.
MIEL MAI: Exertzia, jauna.
ON PATRI: Orain arte ez didate esan da...
MAI KRUX: Etzuten astirik ere.
MIEL MAI: Ez ba...
ON PATRI: Guazen bada. Zer dakartzute?
MAI KRUX: Horra ba jauna. Gauza gutxi bada barkatu, baña huskeri hauek beorri ekartzera etorri gera.
ON PATRI: Beste ezer egiteko gabe, senar-emazteak horretara etorri al zerate?
MAI KRUX: Badaki jauna...
ON PATRI: Ez, beste zer edo zer izango dezute.
MAI KRUX: Bai jauna; hara... zera... honek ziyon...
MIEL MAI: Eta honek erantzun zidan...
MAI KRUX: Bai, ba; beorren iritzia jakin gabe, ezin ezer egingo genuela.
ON PATRI: Jakin zagun ba, nere iritzia behar dezuten gai hori zer dan. Exeri gaitzen.
MAI KRUX: Eskerrik asko jauna.
ON PATRI: Ez dezute ba, soroan okerrik izango.
MIEL MAI: Ez jauna, soroan, bakarrik ur pixka baten palta.
ON PATRI: Betikoa; eta etxian.
MAI KRUX: Etxian ur pixka baten sobra. Mandiyo gañian itute haundiak ditugu jauna.
ON PATRI: Hori ere betikua. Baña, batian palta ta bestian sobra hara nola kito egin dezuten.
MAI KRUX: A jauna! Ura izatiak kalte haundiak egiten dizkigu mandiyuan.
MIEL MAI: A jauna! Ura ez izatiak kalte handiak egiten dizkigu soroan.
ON PATRI: Bai baña, nola nahi dala ere; etxiñaten noski, bata uren billa ta bestia ura bihurtzera etorriko?
MAI KRUX: Ez noski.
MIEL MAI: Horretan balego.
ON PATRI: Abereetan, etxeko bizidunen batean al dezute zerbait?
MAI KRUX: Horrelako zerbait jauna.
MIEL MAI: Etxean jaioa da behintzat.
ON PATRI: Txekorren bat?
MIEL MAI: Romualdo.
MAI KRUX: Seme zaharrena, jauna.
ON PATRI: Ez du ba horrek ur palta ta ur sobraik izango?
MIEL MAI: Ez jauna; horrek ura baño sagardoa nahiago du.
MAI KRUX: Gauz hoiek ez dira hemen esatekoak.
ON PATRI: Ta zer egin du ba?
MIEL MAI: Egin ez... ez egin.
MAI KRUX: Egin behar zuenik ez egin.
ON PATRI: Ta, zer da egin behar zuen hori?
MIEL MAI: Ezkondu!

ON PATRI: A bai. Badira esaten dutenak, gizona ezkontzeko jayua dala, ta emakumea, neskazar gelditzeko.

MAI KRUX: Emakume danak neskazar gelditzen badira, gizonak ezkontzen ez daukate lan txarra.

ON PATRI: A baña, tarteka-tarteka, badira ezkontzen diran emakume batzuek, eta badira ere, mutilzar gelditzen diran gizasemeak.

MIEL MAI: Gure Romualdo bat.

ON PATRI: A! Beaz, semia mutil zaharra dezute?

MAI KRUX: Oraindikakoan bai jauna.

ON PATRI: Ta urtietan aurreratu xamarra?

MIEL MAI: Nahikua jauna. Lanian baño aurreratuagua.

ON PATRI: Beraz, elizak hartuko du?

MAI KRUX: Elizak hartuko duela badakigu; emaztiak hartzia da guk bihar deguna.

ON PATRI: Orduan zuek, euskera mordolluan esan ohi dan bezala, semia enpliatu nahi dezute.

MIEL MAI: Hori da euskara jatorra!

ON PATRI: Ez, hori da euskera mordollua.

MAI KRUX: Dana dala, hori da guk nahi deguna.

ON PATRI: Ba... alabak enpliatzen zerbait ikasia naiz baña semiak enpliatzen ez.

MAI KRUX: Horra beaz. Eta alabak bai, e?

ON PATRI: Bai, nere amaginarrebak erakutsi zidan.

MIEL MAI: Erakusle jatorra.

ON PATRI: Beste bat ez bezelakua. Mutill gazte gogokoren bat herrian azaltzen zanian, beriala apari merienda bat antolatu, ta gazte kanpotarra ekarri azitzen zun etxera.

MIEL MAI: A zer bixka...

ON PATRI: Bixka apari merienda horretan jartzen zun bakallau gixatua jaki gozoagorik ez det nere bizian jan.

MAI KRUX: Bakallaua ondo jarri ezkeru...

MIEL MAI: O! Bakallaua!

ON PATRI: Ondo baño hobeto jartzen zekien, gero esaten zun alabak jarria zala, izugarrizko artakuak zirala, ta hau, ta hori, ta hura... Ta horra nundik, mutillak bakalluaz zaletzen hasi, ta alabaz zaletuak gelditzen ziran. Neroni ere horrela katiatu ninduten.

MIEL MAI: Bakalluan hezurra, alabak ziran beraz?

ON PATRI: Ta hezur hori eztarrian lotzen zitzaigun. Zazpi alaben ama, ta zazpiak enpliatu zitun.

MIEL MAI: Bakallau gixatuakin?

ON PATRI: Bakallau gixatuakin.

MAI KRUX: Guri ere jakitea ondo datorkigu.

ON PATRI: Semia enpliatzeko ez det uste bide zuzena danik. Ez ta xaltxa berdian jarrita ere.

MAI KRUX: Bi alaba ere baditugu ordia.

ON PATRI: Hori besterik da.

MIEL MAI: Zuk jarritako bakallau gixatuakin etzait iruditzen senrgairik katiatugo degunik.

MAI KRUX: Ez ote degu ba guk ere, bakallau gisatua maniatzen asmatuko?

MIEL MAI: Horretarako, oliyua, zuk baño ugariago ibilli nahi litzake, tipula, perejil eta gañerakuak oparuago, ta jakiari begi xamurraguarekin begiratu.

MAI KRUX: Zer begirekin begiratzen diot ba?

MIEL MAI: Begi zekenarekin.

MAI KRUX: Bai, zuretzat, kanpoko gauzak dira onak; etxeakoak beti zatarrak, arandegian ematen dizkizuten zorigaiztoko jatekoak ez dakit zer duten horrela zaletzeko.

MIEL MAI: Bekoki alaiarekin maniatuak.

MAI KRUX: Bai ta mutur ta atzapar beltzakin nahiera ekarriak, gero, zuek, diru txuritan ordaintzeko.

ON PATRI: Guazen, guazen. Ta batetako ezkonarazi bihar du, zergatik da?

MAI KRUX: Badaki jauna; honek hirurogei urte osatu bai ditu...

MIEL MAI: Juan dan urteko San Mioletan, jauna.

ON PATRI: Eta gurasoak hirurogei urte osatzian, semiak ezkontzeko aginte berriren bat etorri al da?

MAI KRUX: Ez jauna; baña seme gazteenak...

MIEL MAI: Tiburtxiok...

MAI KRUX: Bai, Tiburtxiok; orain du soldaruzkako urtea.

ON PATRI: Ulertzen det zer izango dan.

MAI KRUX: Ta gazteena libratuko badegu...

MIEL MAI: Zaharrena katiatu bihar.

MAI KRUX: Zaharrena ezkon arazi bihar.

ON PATRI: Bai, bai, berak lehen egin ez duena, zuek egin behar orain.

MAI KRUX: Guk egin, ez jauna: guk egin azi.

ON PATRI: Bai, bai berdin da.

MIEL MAI: Zer izan behar du berdin, hortan bageunde, hobe genuke ba.

MAI KRUX: Zer edo zer esan nahi zuen ba honek orain ere.

MIEL MAI: Zer esan nahi nuen, nagusi jaunak ederki ulertu du.

ON PATRI: Mutil zarra ezkon arazi nahi dezutela.

MIEL MAI: Nahi ta nahi ez jauna.

MAI KRUX: Herriko sekretayuakin egon gera, ta esan digu, urteberrietako ezkondua egon behar duela, ta poaperak gertu euki behar ditugula ordurako.

ON PATRI: Beraz, atzera begira egon gabe, laister ibilli beharrian zerate.

MIEL MAI: Ezertarako betarik ez degu.

MAI KRUX: Ta, beorri zer iruditzen zayo?

ON PATRI: Neri zer iduritzen zaidan ez; mutillari zer iduritzen zayon da jakin behar dana.

MAI KRUX: Mutillak hontan ez dauka zer ikusirik.

MIEL MAI: Harri begira bagaude...

ON PATRI: Baña, mutillak ez al du ba ezkondu behar?

MAI KRUX: Mutillak ezkondu behar du; baña guk ezkondu behar degu.

MIEL MAI: Guk ez degu ezkondu behar. Hortan bageunde hobe genuke ba.

MAI KRUX: Hau, berriz ere, lehengoa dijua.

MIEL MAI: Ez alperrik.

MAI KRUX: Mutilla bere garaian ezkondu izan balitz, ez genuen guk katramilla habetan sartu beharrik.

MIEL MAI: Ezer egingo bada, geronek egin biharko degu jauna.

MAI KRUX: Ta zer da beorren iritxia?

ON PATRI: Nere iritxia...? Zer nahi dezute nik esatia. Nik uste det mutilla ezkonduko bada, lehenbizi behintzat andregai bat billatu biharko dala.

MIEL MAI: Nik esan nuena.

MAI KRUX: Hori bera esan nizun nik.

MIEL MAI: Bai, baña nagusi jaunak nik bezala esan du.

MAI KRUX: Ta nik bezel-bezela.

ON PATRI: Orain, andregai hori nola aukeratzen dan; horretan dago buruhauste pixka bat.

MIEL MAI: Hori bera esan nion nik honi.

MAI KRUX: Guk ez genuke nahi nolanahiko emakumerik...

MIEL MAI: Ez, ba.

MAI KRUX: Baserriko berri ez duenik.

MIEL MAI: Ez, ba.

MAI KRUX: Lanean ohitu gabeik...

MIEL MAI: Ez, ba.

MAI KRUX: Diru pixkat duena...

MIEL MAI: Ez, ba.

MAI KRUX: Bai, ba!

MIEL MAI: Bai ba, bai, diru pixkat duena.

MAI KRUX: Bai noski.

MIEL MAI: Badaki jauna; gure mutilla, ez da ondo esatia baña alperrontzi bat da...

MAI KRUX: Lasai xamarra, jauna.

MIEL MAI: Jostakin maltzurra.

MAI KRUX: Alai xamarra, jauna.

MIEL MAI: Eta biar genuke, andregaia izan dedilla...

ON PATRI: Ulertzen det. Senargaia ez dan guzia.

MIEL MAI: Hori da.

MAI KRUX: Izan dadilla etxe koia, langillia, artakua, azkarra...

ON PATRI: Bai, bai. Senargaiaren utzuna guziak bete ditzala.

MIEL MAI: Hori da.

ON PATRI: Ez da gaizki asmatua.

MAI KRUX: Eta gañera...

ON PATRI: Gañera oraindik?

MAI KRUX: Bai, ba; gañera diru pixka bat ere izan dezala.

MIEL MAI: Nola mutillak ez duen...

MAI KRUX: Ori da; len esan deguna; mutillak ez duen guzia neskatzak izan dezala. Etxeako bidean ondo zuaztela derizkiot.

MIEL MAI: Eta, gai ontan, zer edo zer esanak gera.

ON PATRI: Baietzian nago.

MIEL MAI: Nik oni aitatu nion Gaztainpeko Atanaxi, neska bizkor ta bikaña.

MAI KRUX: Bai, baña; bargasta ta lotsagabea re bai. Orretako obia da Intxaurgoiko Xixili, neskatzak lirain eta apaña.

MIEL MAI: Bere txima arro ta pirpilin parpakin? Ez da ura gure ukullurako bezelakua.

MAI KRUX: Eta nai bada Bazterretzeko Tiburtxi, edo Zubiaurreko Fillomena, edo Zeznerrako Kailana, edo...

MIEL MAI: EZ, ez; guri ondoena etorriko litzaigukena da, Lizarraldeko Baltazara.

MAI KRUX: Ni ere horretan nago.

MIEL MAI: Ori da guk biar bezalako neskatzak.

MAI KRUX: Bai, ori ondo etorriko litzaiguke.

ON PATRI: Ikusten dedanez, zuek Andregaia begiz jua daukazute.

MIEL MAI: Bai aspalditxotik ere.

MAI KRUX: Noztik gero.

ON PATRI: Ezagun da bai.

MIEL MAI: Izan ere, bere aita, Lizarraldeko Joxe Austin, zakurra izan da bere bizi guzian.

MAI KRUX: Oso aitatua.

MIEL MAI: Tratalari, biurra. Orrek, inguratu zaion guzia bere alde zarpiatu du.

MAI KRUX: Diruz oso ondo egon bear dute.

MIEL MAI: Neroni ere, orain urte batzuek, txal baten jua etorriakin, a zer ostikada eman zidan.

ON PATRI: Eta, orain zuk, alabarekin batian, ostikadaren ordaña jaso nai diozu.

MIEL MAI: Ori da ori. Beorrek bai gauzak ondo ulertzen dituala.

MAI KRUX: Ta zer iruditzen zaio bada, Baltaxara?

ON PATRI: Neri zer iruditzen zaidan?

MAI KRUX: Bai, ba.

ON PATRI: Nik lengua bera esango dizutet; mutillak esan bear duela neskatzak zer deritzaion.

MAI KRUX: Mutillak ez dauka zer ikusirik.

MIEL MAI: Arri begira bagaude...

ON PATRI: Mutilla ez da ba ezkondu biar duena?

MIEL MAI: Len ezkontzia zuan.

MAI KRUX: Guk beorren iritxia jakin nai degu.

MIEL MAI: Ori da beorren iritxia. Orretaraxe etorri gera.

ON PATRI: Nere iritxia... Nik egia esan, neskatz ori ez det asko ezagutzen ere. Begi bakarra ez al da?

MAI KRUX: Orrek ez du ezer esan nai.

MIEL MAI: Neskatz orrek begi batekin, beste askok birekin baño geiago ikusten du.

ON PATRI: Baña, mutillak ez du artu naiko ordia, arrazoiakin ta, esago du ez dagoela osua begi bat palta duala.

MIEL MAI: Aguro osatuko dio Joxe Aguxtiñek; sokuan gordeta dauzkan urre zarrakin.

MAI KRUX: Aiek daukaten ikullua ikustekua da.

ON PATRI: Ikustekua, bai... baña bi begirekin ordia ez batekin.

MAI KRUX: Batekin ere artu liteke arek ekarriko dituen ondorengoakin.

MIEL MAI: Joxe Aguxtin zakurra izan da gero.

ON PATRI: Baña mutilla artaratuko dala uste al dezute?

MIEL MAI: Biarko du.

MAI KRUX: Beorrek agindu duala esango diogu.

ON PATRI: Ez zazutela orrelakorik aitatu ere. Nik ez daukat artarako eskubiderik, ta ez da gogorik ere.

MAI KRUX: Beintzat, beorrekin egon gerala esango diogu.

ON PATRI: Ori, ezin ukatu nezake.

MIEL MAI: Ta ez dago geiagoren biarrik.

MAI KRUX: Orixe zan guk jakin nai genuena: beorren iritxia.

ON PATRI: Nik esan nezakena esan dizutet.
MIEL MAI: Bai jauna. Bai: Guzia garbi ta jator esan digu.
MAI KRUX: Ta orain.... gauza gutxi bada barkatu, baña uskeri auek artu ditza.
ON PATRI: Len ere esan zaituzte. Ez dezutela ezer ekarri biarrikan.
MAI KRUX: Nola ez? Ezer degun guzian emen gera ta.
MIEL MAI: Guzitarako beorregana etortzen gera ta.
ON PATRI: Berriz ere nai dezutenian etorri... Baña esku utsakin.
MAI KRUX: Nola nai du? Lotsakizun ere balitzake.
ON PATRI: Baña ekarri dezuten ezkeru artu egin bearko. Atozte, atozte... Zer edo zer emango dizute.
MAI KRUX: Ez degu ezerren bearrik.
MIEL MAI: Ezta ezer ere.
ON PATRI: Ez dute noski izango bakallau gixaturik.
MAI KRUX eta MIEL MAI: Ori, alabak enpliatzeko.
ON PATRI: Ez zaizute aztu e...?
MAI KRUX: Ezta aztuko ere
ON PATRI: Emendik, emendik.

Irugarren irudia

KONTXEXI: Nagusi jauna, San Pelayoko Xalome etorri da.
ON PATRI: Datorrela onera, beriala banator da. Guazen.
KONTXEXI: Atoz aurrera, atoz.
XALOME: Jas! Au gela apaña; ez du gure borda zarraren itxura aundirik.
KONTXEXI: Exeri zaitetz.
XALOME: Ai! Au bilin-balan Kilikabela!
KONTXEXI: Etxian ez al dituzute onelako exertokiak?
XALOME: A bai! Lo kuluxka egiteko! Ez enetxua, ez, San Pelaioko muturrian ez dago olakorik.
An aizia! Fli! Euria fla, fla, fla! Kaskabarra kra, kra, trumoia, tru, tru, tru!
KONTXEXI: Eta pilarmonika; triki, triki, triki.
XALOME: Ori San Pelaiotan.
KONTXEXI: Orduan izan berriak dituzute.
XALOME: Bai! Aiek ziren jaiak, aiek!
KONTXEXI: Dantza aslqp egin al zenuen?
XALOME: Piskat...
KONTXEXI: Aitzbeltzeko Premiñek lagundu omen zizun etxera...
XALOME: Bai ta zera re... Len bai baño, orain... orain... Zumetako Joxepari laguntzen dio.
KONTXEXI: Ikusten.
XALOME: Enetxua, gizonak oso gaiztuak dira.
KONTXEXI: Gizonak ez; mutill gaztiak.
XALOME: Baita mutill-zarrak ere.
KONTXEXI: Aizu, aiku, gizonazkuak ondo ezagutzen dituzu, e?
XALOME: Zaude ixilik zirikatzelana, ez besterena.
ON PATRI: Emen al degu San Pelaioko un tz oso atsegiña.
XALOME: Bai jauna.

Laugarren irudia

ON PATRI: Baña, iru illabete ba al dira, zu azkenengoz izan ziñala.
XALOME: Gaur jauna.
ON PATRI: Nik uste illak laburtzen zuaztela.
XALOME: Baita zera ere.
ON PATRI: Ta oliua ere laburtzen ote dijuan.
XALOME: Ez jauna. Oliua betiko neurrian eramaten degu.
ON PATRI: Eraman bai, baña, gero, argi ontzira botatzen ote dezute gero.
XALOME: Beti, beti. Neroni aritzen naiz, tan tan tantoka oliua botatzen.
ON PATRI: Lurrera ixurtzen ez bazaizu.

XALOME: Ezta tantorik ere.

ON PATRI: Ez dakit ba. Gure emazte ori azarre xamar dabill, gau abetan ezin lortik egin duela ta nere buruari egiten nion "San Pelaio illunpetan ote daukagu ta somolo-mostoka ote dabilkigu".

XALOME: Ez jauna; San Pelaio ez da bere tokitik mugitu.

ON PATRI: Argirik ez duelako.

XALOME: Oso argi ederra. Bart osaba zarraren galtza berriari arabakiak erasten antxe jardun nintzan.

ON PATRI: San Pelaioren aurrian. Eskuetan daukan ezpata zorrotz arekin ebaki-ebaki egingo zaitu.

XALOME: Bordan ez genuen argirik eta.

MAI KRUX: Eskerri asko nagusi.

MIEL MAI: Agur nagusi jauna.

ON PATRI: Bai al zuazte.

MIEL MAI: Artzekuak artu ditugu ta juan egin bearako.

MAI KRUX: Zeregiñak utzita etorri gera ta etxera aldera egin bearako.

ON PATRI: Ia ba lenbailen mutill zarrakin, gizon gaztia egiten dezuten.

MAI KRUX: Aleginduko gera, beintzat.

MIEL MAI: Aitak emango dizkigu lanak, aitak.

ON PATRI: Beaz alabarekikoa egiña dago?

MAI KRUX: Alabak ez du zer ikusirik.

ON PATRI: Alabak ere ez? Ez mutillak eta ez neskak?

MAI KRUX: Ez noski.

ON PATRI: Orrela lasaiago egongo dira.

MIEL MAI: Baña, aita... zakurra da gero Joxe Auxtiñ, zakurra.

ON PATRI: Kosk egingo ote dizu ba?

MAI KRUX: Zaunka beintzat bai.

MIEL MAI: Zaunka ederrik aterako du arrek.

MAI KRUX: Baña beorrek esan dizkigunakin zerbait egingo dugula uste det.

MIEL MAI: Ori bai, beorri entzunda, tripaki platerkada bat janda baño pozago gelditu naiz.

ON PATRI: Ez dezazutela ba ondorenian triparabirik izan.

MAI KRUX: Eskerrik asko ta, orain ondo-ondo izan ta urrengo bat arte.

ON PATRI: Nai dezuten arte.

MIEL MAI: Egun on pasa.

ON PATRI: Agur. Ikusi dezu nolako lanak dabilzkite oiek, beren semiak nai ta nai ez ezkondu egin biar da... Zuk ez dezu orrelako lanik.

XALOME: Nik ere naiago nuke ortan banego. Larri oiek pozik artuko nituke.

ON PATRI: Ez al zera ba ondo bizi?

XALOME: Lagunakin obeto ordia.

ON PATRI: Ez al daukazu bada an lagun aundi askua San Pelaio?

XALOME: Egurrekoa ordia, ta nik ezur ta aragizkoa nai nuke.

ON PATRI: Xalome, oso arrotu zera, orain bai uste detala San Pelaiotzat ez zerala gogoratzen.

XALOME: Beti, jauna.

ON PATRI: Argirik ez diozula piztutzen.

XALOME: Egun bat utzi gabe.

ON PATRI: Ez nuke beintzat uzterik nai.

XALOME: Ez jauna, ez.

ON PATRI: Tori bada... Ona emen iru illabeteko oliuaren dirua, ta oitu bezela amar pesta auek zuretzat.

XALOME: Eskerrik asko, jauna.

ON PATRI: Ta emendik aurrera, San Pelaiotzaz, ezur ta aragizko lagunaz baño geiago gogoratu.

XALOME: Bietaz jauna, bietaz.

ON PATRI: Baña, emakumia, zer da zorapen ori?

XALOME: Beorren emaztiak ere izan ez bazuen, beorri etzan ezkonduko.

ON PATRI: Ez. Zorapen eta bakallau gixatua izan ez bazian, ez noski.

XALOME: Nik ere, beorren emaztia izan nai det.

ON PATRI: E?

XALOME: Ez, ez beorren emaztia bezela.

ON PATRI: Au, au. Beti griñ orrekin, gauza arrigarria. Buru arin auei guziaz zorapen berak ematen diote. Zintzo guziak, ezkontzeko, erotasun aide bat biar izaten omen dute: erotasun aidia duten auek. Zerren biarran ote daude?

Bostgarren irudia

KONDO: Aurrera nator ni emen, nagusi.

ON PATRI: Begira nago.

KONDO: Beorrek ez nau ni ezagutuko noski.

ON PATRI: Asmatu dezu. Egia da.

KONDO: Banekin, baña, esaten diotenian ni zein naizen, laxter kontuan eroriko da.

ON PATRI: Jakin zagu ba.

KONDO: Beorrek ez luke asmatuko... Zer asmatu biar du...

ON PATRI: Ez, ez det asmatuko.

KONDO: Ni naiz ba... Kondo bertsolaria.

ON PATRI: Ez ba, ez naiz gogoratzen.

KONDO: Banekian. Izena esan utsakin beriala gogoratzen dira ta?

ON PATRI: Ni ez ba.

KONDO: Kondo bertsolaria. Probintzian ez da Kondo bezelako bertsolaririk.

ON PATRI: Baliteke.

KONDO: Bertsuetan ni... ez da beste bat nere mallakorik sortu.

ON PATRI: Izan liteke.

KONDO: Beorrek ez dit oraindik bertsorik entzun.

ON PATRI: Ez ba...

KONDO: Ez noski; bestela etzuen orrelakorik esango.

ON PATRI: Baña, nik, ezere esan ez badet.

KONDO: Orain entzungo dit.

ON PATRI: Nik ez det ezer entzun bearrik.

KONDO: Orain entzungo dit ba.

ON PATRI: Nik ez badet...

KONDO: Itxoin beza; orain entzungo dit eta.

ON PATRI: Au da burugogorra.

KONDO: Entzun beza.

ON PATRI: Entzun egin bearko.

KONDO: Bai, ba. Ara.

Xixili nora zuaz

Polit pertxen ori

Iturrira Pilipe

Nai badezu etorri

Iturrian zer dago

Sagardo txuria

Biok edango degu

antxen baso erdia

ON PATRI: Baña, ori, zuk sortua al da?

KONDO: Nik zuzendua.

ON PATRI: Zuk okertua izatekotan. Gizona, nere amona zanak ni seaskan nagola ori abesten zidan da.

KONDO: Ori ez, errelakoa, baliteke.

ON PATRI: Baña, astakeri oiek esatera etorri al zera neregana?

KONDO: Ez jauna; ez naiz orretara etorri. Ta laister jakingu du zertara etorri naizen.

ON PATRI: Esan zazu bada, esan biar badezu.

KONDO: Oraintxe jakingu du. Oraintxe izan dira etxe onetan Soroberriko Mai Krux eta Miel.

ON PATRI: Egia da.

KONDO: Ez beza ezetz esan, badakit eta.

ON PATRI: Ezetz esan al det ba?

KONDO: Alper-alperrik ukatuko du, jakiñen gañian nago ta.

ON PATRI: Ukatu al det ba.

KONDO: Jainkoagatik ez beza ezetz esan, neonek, emendik ateratzen ikusi ditut eta.

ON PATRI: Eta nik, sartzen eta ateratzen.

KONDO: Gañera badakit zertara etorri diran ere.

ON PATRI: Ez dezu gauza gutxi ikasi.

KONDO: Oiek etorri dira, beren seme Romualdo, Lizarraldeko Baltaxarakin ezkontzeko asmoan.

ON PATRI: Baliteke.

KONDO: Ez beintzat ezetzik esan. Ondo dakit eta.

ON PATRI: Bai noski.

KONDO: Jakingo ez det ba, Romualdo berak esan dit eta.

ON PATRI: Orduan orrela izango da.

KONDO: Eta gañera jakin bear du Romualdoi ez dala Baldaxarakin ezkonduko.

ON PATRI: Ez e?

KONDO: Ez jauna, alperrik ibilliko dira Romualdo bere gurasoak beorri ta beorren amona dipunta ere. Baltaxara ezkonduko da... oneko enekin.

ON PATRI: Arrek ori bera esaten badu.

KONDO: Etxe artan sartuta nik bizi guziko zoriona daukat.

ON PATRI: Bizi guziko aska beintzat bai.

KONDO: Bere aita Joxe Auztiñ gezur ta bar nere alde jarriko det eta nexkatxarena egña dago.

ON PATRI: Bai noski.

KONDO: Nik egia esan ez det etxera ditu askorik eramango, bertsolariak badaki, geronek naikoa biar izaten degu ta...

ON PATRI: Bai, bai.

KONDO: Bai, nik etxe orretan jarri biar detan umoria, zeru bat izango da.

ON PATRI: Umore utsakin mantentzen bazerate.

KONDO: Zer daki Romualdok neskaxa bati itzegiten. Alper tripazai orrek zer esan bear dio?

ON PATRI: Ori beak jakingo du.

KONDO: Nik bai, nik leun, bigun, xamur, itzegingo diot.

ON PATRI: Itxurak ala dira.

KONDO: Entzun beza.

ON PATRI: Zer beste abestia?

KONDO: Entzun beza.

Maite bat maitatzen det

Txoragarria

Begi bi ederrak ditu

argi argiak

Daukat ementxe

Nere barru-barrungo

onetantxe

Arren axala

Izena du berriz

Baltaxara

Arren egia

Txoraturik naukate

bi begiak

ON PATRI: Baña...

KONDO: Txoraturik naukate bi begiak.

ON PATRI: Baña begi bakarra ez da ba.

KONDO: Begi bat besterik ez? Baita berrjun ere baditu arek.

ON PATRI: Bai zera izango ditu.

KONDO: Nai ditun guziak.

ON PATRI: Bai ta bat geiago.

KONDO: Orrek ez izatekotan nork izango ditu ba.

ON PATRI: Ori esan.

KONDO: Etxe oneko alaba da bera. Eta neri kendu nai, arlote tripa aundi orrek, mutil zartu, aguretu, aitonatu, ta neri andregaiia kendu biar.

ON PATRI: Orrenbesteraño sartu ote da ba.

KONDO: Izango ez da ba; nik baño sei illabete geio baditu ta. Ta jakin beza, Romualdo ez dala Baltaxararekin ezkonduko.

ON PATRI: Zuk ala diozu.

KONDO: Ala da ta. Ori ez da ezkonduko. Ori ez du beorrek ezkonduko.

ON PATRI: Nik ez, apaizak izatekotan.

KONDO: Ez ta tanbolinteruak ere. Eta banua, banua.

ON PATRI: Agur.

KONDO: Baña entzun beza ondo. Ori mutil zar geldituko da. Danen parregarri; danen lotsagarri.
Eta banua, banua...

ON PATRI: Agur.

KONDO: Baña, entzun beza au...

ON PATRI: Beste abestia?

KONDO: Entzun beza

*Gazterikan mutilla
enpliatzen ez bada
pasa biarko ditu
makiña bat kezka
Burutik zoraturik
andregairik ez ta
orra azkenerako
mutil zarren pesta*

Bigarren egintza

Lenengo irudia

KONDO: *Kukuak kantatzen du*
Maitatzian ku ku
ku ku ku ku
Miel Maik ere ez du
semia ezkondu
ku ku ku ku
Horren sabel haundia
ondo betetzeko
ez dezu zuk etxian
nahikoa eltzeko
Eta zergatik

MIEL MAI: Ku ku

KONDO: Alper ontziagatik

MIEL MAI: Ku ku, tripazai horregatik

KONDO: Zurrutek gatik

MIEL MAI: Ku ku

KONDO: Sagardoagatik. Bizirik ez al da jaikiko su emanda baizik;

MIEL MAI: Ku ku

KONDO: Ku ku

MIEL MAI: Hago ixilik asto kirtena.

KONDO: Kirtena? Bertzu horrei helduzaiozu kirtenetik.

MIEL MAI: Ta hiri sudur muturretik.

KONDO: Sudur polit hau? Ja jai. Horretarakoxe dago bera. Sudur hau oso-osorik
Baltaxararentzat daukat.

MIEL MAI: Baltaxarak nahikua dik lehen duen sudurrarekin; ta gainera orain bazeukak nork
mutiak atera ere.

KONDO: Zure seme mutilzar tripa haundiak? Atera dezazkiola mutiak etxeko astoari.

MIEL MAI: Etxeko astua ez dek hi gainakua izango.

KONDO: Bataxararentzat hemen nago ni, zure seme tripasaia ez bezalakua;

MIEL MAI: Hor hago? Hor geldiku haiz ba ahua zabalik.

KONDO: Ez bakarrik ordia. Baltaxararekin geldituko naiz.

MIEL MAI: Ku ku

KONDO: Ta zure seme galbaia, ez Baltaxara, ta ez besterekin.

MIEL MAI: Ku ku

KONDO: Hortxe mutilzar usteldu bihar du.

MIEL MAI: Ku ku

KONDO: Zure seme kankallu horrek, neri andregaiia kendu nahi.

MIEL MAI: Ez dek hiria; baña hala balitx ere, nere semiak kenduko likek bada.

KONDO: Ku-ku

MIEL MAI: Ku-ku. Laister ikusiko diagu.

KONDO: Ku-ku.

MIEL MAI: Ku-ku.

KONDO: Ku-ku. Ku-ku.

MIEL MAI: Ku-ku. Ku-ku.

Bigarren irudia

MIEL MAI: Hua bai, ergel alenam kaiku maltzur hori baztarrak nahastera bahator. Zital, petral,
kaskarra.

MAI KRUX: Norekin zenituen erretolika hoiak guztiak?

J. AKIÑA: Zer dezute Mai Krux? Astuak ihes egin edo halakoren bat?

MAI KRUX: Ez da etxekua; baña hortik alde egin duana astoen bat ote dan nago bai.

J. AKIÑA: Etxekua ez bada, gaitzerdi hala ere.

MAI KRUX: Etzait iruditzen etxerako bezalakua denik. Hori etxerako baño kanporako hobia izango da, noski.

J. AKIÑA: Emakumia; juan dan illean izango zuan bost urte, oraintxe bezela Itubideko atarian gertatu nitzan, eta orduantxe astuak ihes egin ziotela eta ikaragarriko ixkadillan zebiltzan. Bada astua, malkor batetik erori ta han hil zan. Hainbeste balio zuan astua. Halako asto ederra. Etxe hartan ederrik bazan asto huraxe zan gero.

MAI KRUX: Oraingo hau erorita, ez det ba uste asko galduko genuenik.

J. AKIÑA: Neri, barrenak halako zarrara bat egin zidan. Egunetan ta egunetan asto haretzat ezin ahazturik egon nitzan. Pilduñena ere bau batzuetan pixtu nion.

MAI KRUX: Oieratzeko ondo etorriko zaizun.

J. AKIÑA: Ilunpetan ere ikusten nuela iruditzen zitzaidan.

MAI KRUX: Zeñekin zenituen zalapart horiek?

MIEL MAI: Barren guziak kixkaltzen garri dit.

J. AKIÑA: Horixe bai txarra, Aingeluko Martiñ Joxeri horrela barrena kixkaltzen jarri ta Ernialdeko osaba zarra ez bata ta ez beste hilda geratu zitzaion.

MAI KRUX: Emakumia, bata ta bestiakin utzi gaitzazu pakian.

J. AKIÑA: Oraintxe laxter izan bihar du urtemuga.

MAI KRUX: Bai ta ixiltzeko muga, orain bertan.

J. AKIÑA: Barrena kixkaltze hori oso txarra da, bai.

MAI KRUX: Bai, bai. Baña jakin dezagu lehenbizi zein dan zure onetatik ateratzera etorri zaizuna.

ON PATRI: A. Nik nahi bezala arkitzen zaituztet.

MIEL MAI: Ongi etorri nausi jauna.

MAI KRUX: Eseri bedi.

J. AKIÑA: Betor honera.

ON PATRI: Ez eskerrik asko. Hitz labur batzuek esatera etorri naiz, ta horiek zutik esango dizkizutet.

MAI KRUX: Nahi duan bezela.

ON PATRI: Bada atzo, zuek alde egin ta beriala, etorri zitzaidan, zera...

J. AKIÑA: Emen izan dan bera.

MAI KRUX: Nundik dakizu zuk.

J. AKIÑA: Miel Mai berak esan ez du ba, zera izan dala?

MIEL MAI: Baita zera re.

MAI KRUX: Emakumia, itxizazu zer ori.

ON PATRI: Zuek ezagutuko dezute noski, bertsolaria omen da...

MIEL MAI: A.

ON PATRI: Esan zidan, Kondo deitzen diotela.

MIEL MAI: Berbera.

MAI KRUX: Nola?

MIEL MAI: Emen izan dana bera.

J. AKIÑA: Ikusten? Banekien nik. Orain amabost egun ere, or Zabaletan...

MAI KRUX: Zabaletakoari utzi zaiozu pakian.

ON PATRI: Zion alegia, Baltaxara bere andregai dala.

MIEL MAI: Zer izan biar du alper moskorondo orrena.

MAI KRUX: Orretarakoxe dauka Joxe Auxtiñek bere alaba.

ON PATRI: Nik ere ala uste det.

MIEL MAI: Ori gizaseme txar bat besterik ez da.

ON PATRI: Bertsolaria bezin txarra bada ala izan biar.

MAI KRUX: Txarragua oraindik ere.

ON PATRI: Baliteke, baña, gaitz egiteko bildurgarrienak oietxek izaten dira.

MIEL MAI: Ori bai.

J. AKIÑA: Bai noski, Aizpuru berrian zer gertatu zan esango bazenioke...

MAI KRUX: Ez zazula esan.

MIEL MAI: Urrengo batian esango diguzu.

ON PATRI: Esan zidan ez ziola Romualdori ezkontzen utziko. Mutil zar gelditu biarko zuela.

~~**MIEL MAI:** Neri ere, ori bera esan dit.~~

ON PATRI: Eta Romualdo ezin mutil zar gelditu liteke.

MIEL MAI: Ez ba.

MAI KRUX: Tiburtxio libratuko badegu...
ON PATRI: Orrengatik, uste det, gauza bat egin bear dala; ta ori esatera etorri natzaizute.
MAI KRUX: Eslerrik asko nagusi jauna.
ON PATRI: Mutillak zer ikusirik ez duela esan zenidaten.
MAI KRUX: Ez ta batere.
MIEL MAI: Orrei begira bagaude.
ON PATRI: Neskatzarena ere egina zegola.
MIEL MAI: Alaxen.
MAI KRUX: Orrek ez digu buru austerik ematen.
ON PATRI: Beaz Joxe Auztiñena gelditzen da, ta ori lenbailen egin bear dala derizkiot.
MIEL MAI: Neroni ere orretan nago.
MAI KRUX: A bai ori beriala egin biar da.
ON PATRI: Gizaseme perratxiku auek baztarrak nastutzen iñor ez bezelakuak izaten dira.
J. AKIÑA: Esango nuke. Ta Aizarzabateko Julianek ere nolako naspillak zertu zituen.
MAI KRUX: Utzi zaiozu Juliani pakian.
J. AKIÑA: Etxe artan izan ziran exkanbillak.
MIEL MAI: Ez degu jakin nai.
J. AKIÑA: Ikaragarriak izan ziran; eta aintxuxen egun oietan beretan, Buenos Airesko Txilen lur ikara izan zan, ta milloika illak, ta milloika elbarratuak...
MIEL MAI: Ixilduko al zera.
MAI KRUX: Utzi gaitzazu izketan.
MIEL MAI: Au iturria.
ON PATRI: Bada, nik uste det, gizaseme orrek ezer egin baño len Joxe Auztinekin itzegin bear dala, ta baietza kendu. Orduan ezarren bildurrik ez da.
MIEL MAI: Bai jauna, bai. Orixe egin biar da.
MAI KRUX: Ondo esaten du.
ON PATRI: Biarko utzi gabe, gaur bertan.
MIEL MAI: Gaur bertan.
MAI KRUX: Bai noski.
ON PATRI: Gerorako utzi gabe, orain bertan.
MIEL MAI: Orain bertan.
MAI KRUX: Bere-bereala.
ON PATRI: Ori esan nai nizuten. Eta nik esan bezela egiten badezute, uste det aurrera aterako gerala.
MAI KRUX: Orrela egingo degu.
MIEL MAI: Bereala joango gera.
ON PATRI: Ia ba zertan gelditzen zeraten. Gero ere alkarren berri izango degu.
MIEL MAI: Bai jauna, danaren berri emango diogu.
ON PATRI: Orain egun on bat igaro, ta beste bat arte.
MIEL MAI: Nai duen arte.
MAI KRUX: Dijua ondotoxo.
J. AKIÑA: Ez al diozue ezer eskeñi biar?
MAI KRUX: Izan ere, zerbait artuko du.
MIEL MAI: Sagardo pixka bat ez...
ON PATRI: Eskerrik asko. Ez det ezer ere biar. Agur.
IRURAK: Agur.

Irugarren irudia

MIEL MAI: Bere beriala jua biar da Joxe Auztiñeñgana.
MAI KRUX: Une bat ere itxoin gabe.
J. AKIÑA: Nagusiak zorrotz asko esan du.
MAI KRUX: Arrazoiakin da; ezin gerorako utzi liteke.
MIEL MAI: Ez, ez, beriala egin bear dan gauza da.
MAI KRUX: Beriala.
MIEL MAI: Bere beriala.
MAI KRUX: Eta dagona dagon tokian utzi ta oraintxe bertan jua biarko dezu.
MIEL MAI: Ni?

MAI KRUX: Noski.
J. AKIÑA: Bai, ba.
MIEL MAI: Ni orain ezin juan nitekela badakizun, soro ta baratzak nere zain daude, itotzekogaña lan badaukat.
MAI KRUX: Lanik biarrena orain, Joxe Auztiñengana juatia da.
J. AKIÑA: Esango nuke.
MIEL MAI: Itaia ere oso akastua eta zorrotz aldi bat eman biar diot beriala.
MAI KRUX: Gero emango diozu.
MIEL MAI: Zarpa zar auekin ere ez nago etxetik ateratzeko eran.
MAI KRUX: Orrek ez du zer ikusirik.
MIEL MAI: Alpraketak ere lokarriak etenda korapillatzen aritu biar izan det.
MAI KRUX: Utzi itzazu alde batera zarpa zar eta korapilluak eta esan zazu garbi gizon orrengana juatiak izutu egiten zerala. Izutu.
MIEL MAI: Egia da ta. Gizon ori... Joxe Auztin zakurra den gero, zakurra.
MAI KRUX: Txepela ez besterena. Gizon baten aurrera juateko orrela kuskurtuta.
MIEL MAI: Ez dakizu ondo zein dan.
MAI KRUX: Nik beintzat, zein ta emakumia naizen ez nuke orrenbeste kezka gizon orrengana juatekoa.
MIEL MAI: Ederki. Orduan zeori juan zaitez.
MAI KRUX: E?
MIEL MAI: Badakizu bere beriala juan biar dala.
J. AKIÑA: Ori bai.
MAI KRUX: Zer! Etxian praka-mantalak jazten dituan gizona euki ta, emakume gajo batentzako egitekoa dala iruditzen al zaizu.
MIEL MAI: Oso ondo artuko zaitu.
MAI KRUX: Noski; zuretzat zakurra, ta neretzat erbia izango da.
MIEL MAI: Nola nai ere, ezin utzi genezake gerorako.
J. AKIÑA: Ez, ez; beriala egin biar dan gauza da.
MAI KRUX: Ni ez naiz ba bakarrik juango. Nai badezu biok juango gera.
MIEL MAI: A, ni ez.
MAI KRUX: Ni ere ez ba.
MIEL MAI: Baña ez dezu ikusten, beriala egin biar dan gauza dala?
MAI KRUX: Ta zuk ikusten al dezu?
MIEL MAI: Baña, ni ezin juan ba naiz...
MAI KRUX: Ta ni juan ezin ba naiz...
MIEL MAI: Ezin juan bazera... ni ez naiz juango beintzat eta, juango dan bat billatu biarko degu.
MAI KRUX: Zuregatik ala biarko.
MIEL MAI: A. Iñork baño obeto Joxepa Akiñak egingo digu ori.
J. AKIÑA: Nere egitekua ez dala badakit, baña, ala nai izan ezkerro Joxe Auztiñengana juango naiz eta esango dizkiot itz batzuek.
MAI KRUX: Ez dira gutxi izango.
MIEL MAI: Bai, esaiozu, seme gazteenaren soldaduska degula, orrengatik seme zarrena ezkon arazi bearrian gerala, ta bere alaba Baltaxararekin nai degula.
J. AKIÑA: Bai, bai. Igaz Etxeberriko Kikaxiarekin egin zan bezela. Esango dizutet zer gertatu zan.
MIEL MAI: Ez, ori Joxe Auztiñei esaiozu.
MAI KRUX: Bai, ari esan guzia.
J. AKIÑA: Gogoratuko zerate nola Manuela Iñaxi; egunetan eta egunetan onenbesteko aunditua masallian zuala ibili zan.
MIEL MAI: Ori Joxe Auztiñi.
J. AKIÑA: Suigaiak egin ote zion edo ez ote zion... baña senarrak egiña izan biar zuen, aunditxu artan senarraren ukabilla ezagun zan.
MAI KRUX: Ori guzia arri.
MIEL MAI: Joxe Auztiñi.
J. AKIÑA: Banua ba beriala.
MIEL MAI: Ta badakizu zer esan.
J. AKIÑA: Eta Aritzazpiko Nikaxio ezkontzeakoan, badakit nik ondo...
MAI KRUX: Esaiozu ba orrei.
MIEL MAI: Esan arei guzia.

J. AKIÑA: Banua ba... Eta emen bertan ere Agerregoiko Luxiano...

MIEL MAI: Arei, arei.

MAI KRUX: Arei esan.

J. AKIÑA: Eta guzietan parregarriena...

MAI KRUX: Ori guzia arei.

MIEL MAI: Guzi guzia.

Laugarren irudia

MIEL MAI: Noizbait ere jua da. Buruko tximetaraño bere nau bere berriketakin.

MAI KRUX: Gizon katilluak diran etxian orrelako berriketak entzun biar izaten dira.

MIEL MAI: Eta ondo iruditzen zaizu iturri orren azken gabeko berriкета nazkagarria.

MAI KRUX: Ni ez nau nazkatzen orren berriketak, zure txepelkeriak nazkatzen nau.

MIEL MAI: Nere txepelkeriak ez; nere ezin egiña, azpizatiruk naukaten nere lanak, nere eginkizuna... Orain ere... itaia txorrosteko daukat.

MAI KRUX: Itaia txorrosteko egongo da, baña ez zu bezain amotsa.

MIEL MAI: Ez ta ere zure mingaña bezin zorrotza.

MAI KRUX: Eta beriak aundiagoak.

MIEL MAI: Banua, banua, zure mingaña amoste ote detan.

MAI KRUX: E?

MIEL MAI: Itaia txorrostean ote detan.

MAI KRUX: Zure kemena pixka bat txorrosteko bazenu obeto egingo zenuke. Gizona orren aula izatia. Onelako gizonak gona erabilli biar lituzkete. Ta ez galtzak. Joxe Auxtiñengana juateko orrenbeste ixtillu ta iñozokeri. Ez dakit zein dala iruditu zaion. Ni beintzat orrelako lotsakizunik gabe azalduko nitzake. Zer da ba Joxe Auxtiñ?... Zer?... Zer?... Auxe! Auxe bera!

J. AUXTIN: Zer degu Mai Krux?

MAI KRUX: Jox... Jox... Joxe Auxtin.

J. AUXTIN: Emakumia... toteldu egin al zera?

MAI KRUX: Ez... zer... zer... zera. E... xe... xe.... xeriko zera.

J. AUXTIN: Orrenbeste xe... xe... xerekin alia ere purrukatuko dezu.

MAI KRUX: Batetako gauza... da... da.

J. AUXTIN: Ni onera etortziak izutu al zaitu?

MAI KRUX: Bai ze... zera. Guk jua biar genuen zu... zuregana.

J. AUXTIN: Bai noski, zuek jua ezkeri nik etorri biarrik ez.

MAI KRUX: Makiña bat aldiz Miel Mairi esan diot. Baña gure gizona ain txepela da.

J. AUXTIN: Len ere orrela zan da...

MAI KRUX: Gero ta txepelago.

J. AUXTIN: Zuk arrotu biar zenuke pixka bat.

MAI KRUX: Ez da lastairik, nik ori bezela arrotzen danik.

J. AUXTIN: Zer zuan orduan?

MAI KRUX: Zuk gaizki artuko zenuen bildurra.

J. AUXTIN: Zergatik ordia?

MAI KRUX: Nik ere ori esaten nion. Baña zion alegia zu zerala za... za... zakur...

J. AUXTIN: E?

MAI KRUX: Ez. Za... za... kar.

J. AUXTIN: Nola?

MAI KRUX: Ez, ez ez... zakon xamarra.

J. AUXTIN: Jendien berriketak dira oiek.

MAI KRUX: Ori bera esan nion nik ere... ta, gauzaren berri badezu, e?

J. AUXTIN: Zuek arutz asi ordurako, ni, jira egin ta onera nator.

MAI KRUX: Ta onera etorri zeranian ondo iruditu zaizulako izango da?

J. AUXTIN: Noski. Ez bazitzaidan ondo iruditu, ez nitzan batere etorriko.

MAI KRUX: Ez dakizu zer poza ematen didazun.

J. AUXTIN: NI ez naiz buru arin asko bezela, gauzak edozein eratara egiten dituen. Nik ondo oldoztu ta gero. Antolatzen bagera...

MAI KRUX: Nik egi egia esango dizut. Gure mutilla Romualdo.

J. AUXTIN: Ez dezu esan biarrik. Gauza auek gizon artian erabakitzeak dira. Ez dira auek amumiantzat egiten diran eginkizunak.

MAI KRUX: Ori ber bera esan diot gure gizonari; baña nola kuxkurtuta gelditu zaidan, orrengatik aurreratu naiz ni.

J. AUXTIN: Deitu zaiozu bada. Datorrela. Berakin itzezin bear detala.

MAI KRUX: Pozik etorriko da. Ondo iruditu zaizkula jaikitian.

J. AUXTIN: Datorrela, ta guzia jakingo du.

MAI KRUX: Beriala deituko diot. Miel Mai... Itaia amosten edo, zorrozten edo...

MIEL MAI: Zer dezu orrenbeste karraxiarekin? Joxe Auxtin!

MAI KRUX: Atoz gizona. Guzian berri badaki ta ondo artu du.

MIEL MAI: Egietan!

MAI KRUX: Emen da gure gizona. Dana egiña dago ta amor eman guziaz.

MIEL MAI: Bai, bai.

MAI KRUX: Or gelditzen zerate biok; ta ia nolako antolapenak egiten dituzuten.

MIEL MAI: Antolatuko gera. Egon lasai. Kaxo Joxe Auxtin.

J. AUXTIN: Zorrozketan ari al aiz?

MIEL MAI: Bai, itai hau zar-berritzen ote detan edo.

J. AUXTIN: Betikoa. Langille txarrak, erraminta txarrak.

MIEL MAI: Ez ba, zorrozketan aldi onekin, zure galserea ere ebakiko nuke.

J. AUXTIN: Arta soroak zeudek orain ederrak.

MIEL MAI: Bai orixe. Aurtengo artua ta babarruan ez degu nola naikoa.

J. AUXTIN: Ona...? Ja... Beste urtetakoa bezelakua baldin ba dek...

MIEL MAI: Aurten banen banekua degu ba.

J. AUXTIN: Orren ederra baldin badezute, amar bat anea gorde izkiak. Badakik babarruan bera zia, oso bera.

MIEL MAI: Ez ba, azkenengo perian goi xamar jo zun.

J. AUXTIN: Bai, baña orain "tasa" jarri ziotek.

MIEL MAI: Dana dala, ez jakin orrenbeste izango degun, baña gurea zuentzat izango da.

J. AUXTIN: Bai, zuena zetorkigu ondo.

MIEL MAI: Emen izan degu zori gaiztoko Kondo ori ere.

J. AUXTIN: Zein? Bertsolari alproja ori?

MIEL MAI: Bai, ta gañera zion, zure alabarekin ezkondu biar omen duala.

J. AUXTIN: Nere alaba, alperrondo orrekin? Orretarakotxe zeukat.

MIEL MAI: Beraz, zuri ondo datorkizuna, guriz da?

J. AUXTIN: Len ere esan diat, nere ondo datorkidana zuena dek.

MAI KRUX: Antolatzeak antolatu al dezute?

J. AUXTIN: Dana egiña dago.

MIEL MAI: Konorena esan diot.

J. AUXTIN: Alper, lotsagabe, maltzurra.

MAI KRUX: Petrala.

MIEL MAI: Ez omen du orrekin ezer nai.

J. AUXTIN: Ezta aitatzetik ere.

MAI KRUX: Arrazoiakin da.

MIEL MAI: Baña... guria bai.

J. AUXTIN: Len ere esan diot oni. Neri ondo datorkidana zuena da.

MAI KRUX: Guri ere bai ba.

MIEL MAI: Bai noski.

J. AUXTIN: Ori, zuentzat eta guretzat, biontzat dator ondo.

MIEL MAI: Biontzat.

MAI KRUX: Oraintxe esan dezu egi egia.

J. AUXTIN: Eta ez dago geiago esan biarrik.

MAI KRUX: Ezta batere.

J. AUXTIN: Beaz urrengo bat arte.

MIEL MAI: Nai dezun arte.

MAI KRUX: Baltaxari eskumunak.

MIEL MAI: A. Bai.

J. AUXTIN: Esango diot.

MAI KRUX: Ikustaldi bat egitera juango gatzazkizute.

J. AUXTIN: Nai dezutenian.

MIEL MAI: Romualdo ere juango da.

MAI KRUX: Bialiko degu.

Bostgarren irudia

MIEL MAI: Nork esan du gizon ori zakurra dala?

MAI KRUX: Zuk.

MIEL MAI: Gizon ori bezelakuak aldarian jarri biar liteke.

MAI KRUX: Bai, gizon on, zintzo, benetakio bat azaldu zaigu.

MIEL MAI: Ori, beste bat ez bezelakua.

MAI KRUX: Gauza, guk nai baño obeto jarri digu.

MIEL MAI: Eta zuk nola esan diozu?

MAI KRUX: Nik esan? Iñolare ez, guzia bazakian da.

MIEL MAI: Ni zerbait esaten asi natzaio, baña neri ere guzia bazekiela erantzun dit.

MAI KRUX: Bai, bai. Orrek onera etortzerako gauzen berri ondo jakin du.

MIEL MAI: Baña, zuk esan ez badiozu, nork esango zion orduan.

MAI KRUX: Ez dakigu ba. Joxepa Akiñak esango zion noski.

MIEL MAI: Arek etzuen orretarako betik.

MAI KRUX: Ezin esan. Joxepa Akiña azkarra da gero.

MIEL MAI: Mingaña ariña zuala banekian; baña ez nuan uste oñak orren ariñak zituanik.

MAI KRUX: Dana dala, guk nai bezela atera zaigu.

MIEL MAI: Tiburtxio libratuko degu...

MAI KRUX: Etxe ortan gañera itzal on bat izango degu.

MIEL MAI: Gure zartzaroako, a zer egunak datorkigun.

MAI KRUX: Alde guzietatik zoriona.

MIEL MAI: Ni pozaren pozaz, eta bidez txurrit bat egizañ, nagusi jaunarengana nua, emen gertatu danen berri ematera.

MAI KRUX: Ez; ni juango naiz. Zu ezin juan zintezke. Lan asko daukazu; itaia zorroztu biarra.

MIEL MAI: Oiek gero egingo dira.

MAI KRUX: Zarpa zar oiekin ere ez zaude iñora juateko. Alpreaketa ere korapilluz josiak dakazkizu.

MIEL MAI: Gauz oiek, Mai Krux lenago bizi giñan illuntasu tamalgarri aietan gertatzen ziran.

Baña, zorionezko eguzkiak gure kemenak sendotu dituan ezker guzia aldatu da.

Zer ajola digu orain, itaia akastua egonda ere. Joxe Auxtini berri bat eskatu ta kito.

Zarpa zarrak eta alpraketak korapillodunak? Gure erraña Baltaxarak nai bezelakuak ekarriko dizkigu.

MAI KRUX: Esan dezagun, ez dala gure semia ezkontzen etxeko guziak ezkontzen gerala Baltaxararekin.

KONDO:

*Esaten dezute or
ezkondu ezkondu
ez zuen mutillari
gogorik berotu
alperrikakoa da
ezkondu bearra
bada geldituko da
beti mutilzarra*

MAI KRUX eta MIEL MAI: Bai e?

KONDO: Bai noski; ez dezute emazte gairik arkituko zuen seme trakets orrentzat eta.

MAI KRUX eta MIEL MAI: Ez e?

KONDO: Ez da, ez. Ez da emakumerik zuen semia bezelako fardelik bizkarrian artuko duanik.

MIEL MAI: Jakin zak bada, gure seme fardel orrek andregaia baduala, a ez nola naikua ere.

MAI KRUX: Jakin biar dezu gañera, gure seme ori beriala ezkontzeko dala. Ta ezkontza egiten duala gain gañekua.

KONDO: Gain gañekua aparra izaten da; ta zuen asmoetan berriz ametsa.

MAI KRUX: Ez da amets goxoagorik, guri une onetan gertatzen zaigun bezelakorik.

MIEL MAI: Bai, **Kondo:** i orain ere Kondo geldituko aiz; baña gure semiak eltze ondo betia bereganatu dik.

KONDO: Bere tripa aundia betetzeko eltze batekin etzait iruditzen naikua izango duanik.

MIEL MAI: Emen izan dek Joxe Auxtin.

MAI KRUX: Oraintxe juatia egin du.

KONDO: Emen izan al da?

MIEL MAI eta MAI KRUX: Ementxe.

KONDO: (Bai neri iruditu) Emen izan da beraz.

MIEL MAI: Eta esan ziguk ez aizela Baltaxararekin ezkonduko.

MAI KRUX: Ez daukala orretarako bere alaba.

MIEL MAI: Ire izena ez dik aitatzerik ere nai.

MAI KRUX: Ez omen du etxian, zu bezelako alperrik biar.

KONDO: Eta zuen semia?

MAI KRUX: Ori bai.

KONDO: Ni baino alperragua bada.

MIEL MAI: Guria omen dek arek biar bezelakua. Berreun aldiz esan ziuk.

MAI KRUX: Izan ere gure semiarekin txoraturik dago, txoraturik.

MIEL MAI: Ezagun zuan bai.

MAI KRUX: Gu Baltaxararekin bezela.

MIEL MAI: Gu Baltaxararekin bezala, ori da.

KONDO: Ez dizuet ba ezer sinisten.

MIEL MAI: Ezetz? Laister ikusiko dek.

MAI KRUX: Ezkontza erabakia gelditu da.

MIEL MAI: Eztaiak beriala dizkiagu. A. Ta nai badek ire bertso oietako batzuek botatzera etorri inteke.

MAI KRUX: Kanpotik ordia.

MIEL MAI: A, bai. Etxe kanpotik. Gero leiotik erakutsiko dizkiagu ollo xankuak eta...

MAI KRUX: Arkume giltxuriñak eta...

MIEL MAI: Kondo, begiak poztuko zaizkik!

MAI KRUX: Aseko zaizkizu Kondo!

Bostgarren irudia

J. AUXTIN: Aizak i; len esan deguna gañera, amar anean orde, amabi edo amalau edo amasei osatzen badituk, e, badakik...

MIEL MAI: A, bai; dagona gordeko dizut.

MAI KRUX: Etxeko guztia zuretzat izango da.

J. AUXTIN: Eta ale kaxkarrena bazterreratu, ta ontxuna jarri.

MIEL MAI: Aurten dana degu ona.

MAI KRUX: Eta ala ez izanda ere, on onetan onena jarriko dizugu. Zuri dizugun begirapen onarekin. Esango nuke.

KONDO: Zer dezu nitzaz esan biarra?

J. AUXTIN: Ua nere begien aurretik, kaiku galbaia...

MIEL MAI eta MAI KRUX: Galbaia.

KONDO: Zer dala ta, ni ikusi ezin nazu?

J. AUXTIN: Nik ezin ikusi detalako i bezelako berekoi.

MIEL MAI eta MAI KRUX: Berekoi.

J. AUXTIN: Alper...

MIEL MAI eta MAI KRUX: Alper.

J. AUXTIN: Tripazai.

MIEL MAI eta MAI KRUX: Tripazai.

J. AUXTIN: Ondatzailleik.

MIEL MAI: Kondo, ederrak esaten dizkik.

MAI KRUX: Zuk biar bezelakuak.

KONDO: Ni gañakoik ez?

J. AUXTIN: Ez jauna.

KONDO: Eta... nola ematen diozu alaba, ni baño berekoi, alper, tripazale ondatzale aundiago batei?

MAI KRUX: Ori ez da zure egitekoa.

J. AUXTIN: Nik ez ziuat alaba iñori eman.

KONDO: Oraindik eman ez badiozu ere. Baltaxararen ezkontza erabakia dezu.

J. AUXTIN: Baltaxararen ezkontza? Norekin gero?

KONDO: Etxe ontako mutil zar Romualdorekin.

J. AUXTIN: Ago ixilik orrelako astokerik esan gabe.

KONDO: Ixilik egoteko, oiei esaiezu, au betian ori zabaltzen asi dira ta.

J. AUXTIN: Zer gai orretzaz gero?

MIEL MAI: Len nola itzezin bai degun, eta zuk esan dezun guria ondo datorkizula.

MAI KRUX: Bai, ba; zuentzat eta guretzat datorrela ondo guria.

J. AUXTIN: Zuen?

MAI KRUX: Guria nai dezula.

MIEL MAI: Len ala esan dezu.

J. AUXTIN: Zuen, bai noski. Baña zuen babarruna.

MAI KRUX: Zer babarrun! Semiaren ezkontzaz ari giñan.

MIEL MAI: Zure alabaren ezkontzaz...

J. AUXTIN: Nik ez det seme ta alabarik aitatu. Ta jakin zazute nik ez daukatala alaba, ez Kondo alproja horrentzat ez zuen seme mutilzarrantzat. Nik ez det etxian alperrik biar.

KONDO: Babarruna. Orixe da zuen seme tripazaiak biar duen andregaia. Gurdi bat babarrun.

MAI KRUX: Toki onian utzi gaitu gizon orrek.

MIEL MAI: Zakurra da gero Joxe Auxtin, zakurra.

Irugarren egintza

Lenengo irudia

- MIEL MAI:** Au da atarramentua ta buru austia. Gure Romualdorentzat ezin iñun arkitu.
- J. AUXTIN:** Illabete ta erdi izango dituk babarrun tratua egin genuela, ta oraindik ez diat izan ezerren berririk.
- MIEL MAI:** Ez, berriak atzera datoz.
- J. AUXTIN:** Zarrak ere badite agortzeko garaia.
- MIEL MAI:** Ori da gertatu dana. Agortu egin dira.
- J. AUXTIN:** Agortu?
- MIEL MAI:** Bai, aitu.
- J. AUXTIN:** Aitu.
- MIEL MAI:** Bai, aitu; ez da ale bat ere gelditu.
- J. AUXTIN:** Aizak, berriketa gutxi neri. Nik irekin egin nian tratu bat.
- MIEL MAI:** Baita nik zurekin, beste bat.
- J. AUXTIN:** Nik babarrunaz itzegin nikan.
- MIEL MAI:** Bai ta nik seme-alabetaz.
- J. AUXTIN:** Nik ez nikan seme-alabik aitatu.
- MIEL MAI:** Ez da nik babarrunik.
- J. AUXTIN:** Bai jauna. Baña onian ez bada, txarrian eman biarko dizkiak. Baita burua txikituko badiat ere, gezurti madarikatua.
- MIEL MAI:** Ara, orretarakoxe daukat itai polita.
- J. AUXTIN:** Akatsez betia ordia.
- MIEL MAI:** Ez ba. Zorrotz zorrotza. Orren aua... a ze aua daukan.
- J. AUXTIN:** Nik ixildu aziko diat iri, au zabal ori.
- MIEL MAI:** Ondo betetzen badiazu bai. Nik nola galdetu ala erantzun, batek KIRIELEIXON... nik KIRIELEIXON... bestiak KRISTELEXON... nik KRISTELEXON.
- J. AUXTIN:** Eta nik ire zitalkeri, matzurkeriari erantzuten bazioat... KIRIELEXON... KRISTELEXON, KRISTELEXON...
- MIEL MAI:** Orduan nik PATER NOSTER...
- J. AUXTIN:** Ikusiko diagu biar dan tokian orren arro erantzuten diakan.

Bigarren irudia

- MIEL MAI:** Zuaz, bai, zital petrala, zeuria egin ezkerro ajolik ez dizuna, gizatxarra merkatari maltzurra.
- MAI KRUX:** Errosario ori guzia zeñekin zenuen.
- MIEL MAI:** Joxe Auxtin, gizon txar, pozaitso orrekin.
- MAI KRUX:** Emen al zan orain ere?
- MIEL MAI:** Emen zan bai, baserri lapur ori. Zakurra da gero Joxe Auxtin zakurra.
- MAI KRUX:** Ori esanten ez zenuen garaia ere izan zenuen.
- MIEL MAI:** Noiz gero.
- MAI KRUX:** Esan zenidanian, orrelako gizonak aldarian jarri biar zirala. Jarrizazu orain aldarian.
- MIEL MAI:** Bai, ba; orain nik ori aldarian jarriko nuke, baña purgatorioko animen tartian, an sitan, sardin zarra bezela kixkaltzen.
- MAI KRUX:** Gizon ori txarra izan da guretzat.
- MIEL MAI:** Guretzat eta bestiarentzat ere bai. Gure oker guziak etxe ortan gure begia bota genuelako etorri dira.
- MAI KRUX:** Orduan amets oiek genituen da.
- MIEL MAI:** Zorigaitzoko Baltaxara orrek baztar guziak nastu dizkigu. A, gure nagusi jaunak azkar igarri zion. Gogoratuko zera nola, esan zigun begi bakarra zala ta kontuz ibiltzeko.
- MAI KRUX:** Ez nion nik orrelakorik entzun.
- MIEL MAI:** Esan oi da bai, neska begi bakarra, ta zezen adar motza kontuzkoak dirala.
- MAI KRUX:** Len gogoratu biar zenuen orretzaz, ez orain.

MIEL MAI: Len ere esaten nizun nik, guri ondo zetorkiguna Gaztainpeko Atanaxi zela.

MAI KRUX: Ikusi dezu ba zer ereantzun dizun.

MIEL MAI: Noiz erantzun du ordia? Galdetu zaionian. Eta noiz egin diogu eskapena? Baltaxarak uts egin digunian, eta Kondo arlote orrek, andregai ba ezin arkite degula, etxez etxe neska billa gabiltzala bazta guzietan zabaldu duanian.

MAI KRUX: Ala ere erantzun ori ez da ematen. Mutil zar alper orren tripa betetzeko ez nago ni. Ori ez zaio gurasoai esaten. Len ere esaten nun nik guretzat egokia zala Intxaur goiko Xexili.

MIEL MAI: Bere txima arro ta guzti. An ere ederra erantzun zizuten ba.

MAI KRUX: Etxe artan ez ziguten biar ez zan gauzik esan. Donostira izebagana bialdu zutela ta ezkontza on bat egin zezakela.

MIEL MAI: Onenian ixkribiente batekin ezkondu zitekela. Ez al ziguten orrela esan?

MAI KRUX: Bai orrela esan zuten.

MIEL MAI: Ixkribientia! Ez dakigu zer pixti ote dan ixkribientia edo dalako ori.

MAI KRUX: Exenarroko Kaitana ere, ez zan ba txarra baña, egun auetan senar gairen bat azaldu omen zaio ta...

MIEL MAI: Bai, batek bata, ta bestiak bestia duelako. Baña emen ez da andregai baten aztarranik agiri.

MAI KRUX: Ez da ba, geldirik egon geralako.

MIEL MAI: Ez orixe, errian diran baserri guziak goikuaz bera aztarkatu ditugu eta gure mutil zarrantzat ez degu gona dun bat arkitu, nik oraintxe ler egin det, gelditu dedilla ortxe mutil zar, ta gero beste munduan ibili dedilla lertu arte neskar bat bizkarrian duela...

MAI KRUX: Bai, ta gure Tiburtxio...?

MIEL MAI: Orretxek biotxkatzen nau.

MAI KRUX: Orrelako mutil zintzo ta langillea.

MIEL MAI: Orregatik ez balitz, or geldituko litzake gure euli mandua mutil zar.

MAI KRUX: Ikusi dezagun beintzat Joxepa Akiñak zer berri dakarren, bat elurtegiara juateko gelditu zan.

MIEL MAI: Gajo orrek alegiñak egin ditu.

MAI KRUX: Ori saiatu dan bezela.

MIEL MAI: Esango nuke, orren eskuetan egon balitz... aspaldi aiton amonatuak geunden biok.

MAI KRUX: Orrek izan balu...

MIEL MAI: Orrek izan balu, geuria genuela kontu, emakume ori...

MAI KRUX: Ona emen bera.

J. AKIÑA: Berri txarrak dakarzkid.

MIEL MAI: Jakiña. Mutil zar orrentzat ez degula andregairik arkituko.

J. AKIÑA: Ez omen dute nai, orrelako mutil zar, alper, lasairik.

MAI KRUX: Ikusten, lotsagabe oiek.

J. AKIÑA: Esan diet ba. Mutil orrek ez du ekatzik, langillea dala badakit, etxe onekua, osasuntsua; ta tripa aundia badu ere, triparik ez izatia baño obia da. Nik aien tokian itxu-itxuan artuko nukiala.

MAI KRUX: Ederki esan diezu.

J. AKIÑA: Esan diet, gogoratu zaitzete Mendiben gertatu zanaz. Ango Joxe Pilipek ere Kupela gañako tripa bazuen, da badakizute gero nola ibili ziran...

MAI KRUX: Aiei esan al diezu?

J. AKIÑA: Guzi guzia.

MIEL MAI: Orduan naikua da.

MAI KRUX: Beaz Elurtegin ezetz esan dizute?

J. AKIÑA: Bai, baña gero onera netorrela, zera... arkitu det... neska zar amorratu... Akilina.

MAI KRUX: Neska bandera ori... Ez nintzan zanik ere gogoratzen.

J. AKIÑA: Matraka ori, bere sudur luzearekin galtzadun usaia nun arkituko or ibiltzen da gero. Gogoratuko zerate on Kantoitik, Kaxkagorri zelataka ari zala etxiak su artu ta zoro orrek ezer ere nabaitu ez. Errementari onekoak etorri ez balira, erretzen da bere txima, sudur luze ta guzi...

MAI KRUX: Bai, bai.

J. AKIÑA: Beste batian berriz, Xirilo...

MIEL MAI: Bai baña.

MAI KRUX: Akilinak zer esan dizu???

J. AKIÑA: Tuntun orrek esan ez dit ba ez dala ezkonduko mutil zar orrekin. Kondok esan omen du Romualdokin ezkontzen danari bertsuak jarriko dizkiola.

MIEL MAI: Zital maltzurra.

MAI KRUX: Petrala...

J. AKIÑA: Bildur orrek atzera azitzen ditu. Esan diet ba, gu gaztiak giñala ere bertsuak hartzen zituztela. Etxetxoko Juan Mariri ere jarri zizkioten, emazia artu biarrian betroia erosi zula ta...

MAI KRUX: Utzi zaiozu orrei.

MIEL MAI: Naikua da.

J. AKIÑA: Baña, ala guztiz ere ezkondu egiten ziran.

MAI KRUX: Utzi zagun ori alde batera. Bart beste batez gogoratu nintzan.

J. AKIÑA: Beste batez?

MIEL MAI: Nola ez ba! Gau ta egun or gabiltza beste egitekorik gabe gure mutil zarrarentzat andregai billa ta.

MAI KRUX: Iturbiden badute nexka beltzaran bat.

J. AKIÑA: A bai, egia diozu! Zotera, ume zurtza, bere izeba-osabak asko maite dute.

MAI KRUX: Ala dirudi.

J. AKIÑA: Nik uste det... naiko dula.

MIEL MAI: Eta nik berriz ezetz.

J. AKIÑA: Zergatik ordia.

MIEL MAI: Gure mutil zarrakin iñork ezkondu nai ez dulako.

J. AKIÑA: Saiatuko gera beintzat. Nere eskuan balego.

MAI KRUX: Bai orixe.

J. AKIÑA: Orain juango naiz Iturburura ta...

MIEL MAI: Zuaz bai, ta orrek utsegiten badigu ere, barrura nua ni beste batez gogoratzen ote naizen.

J. AKIÑA: Onekin asmatuko degula uste det. Gogoratuko zerate etxe orretan zan ba gaur bezela aitonari elizakuak eman... ta biar bezela auzoko amona ez bat eta ez beste ilda gelditu...

MAI KRUX: Bai baña... zuaz beintzat.

J. AKIÑA: Banua... Nere eskuan balego egiña zenuekateke.

MAI KRUX: Gajo orrek mingain luzia ez balu.

J. AKIÑA: Sinistu zazu. Ez uste izan enbustekeriz esaten detanik.

MAI KRUX: Bai noski, baña zuaz emakumia.

Irugarren irudia

MAI KRUX: Orrek uste aundiak ditu, baña bildur izan biar. Emakume bat gizon batentzat zaletzen danian guztiak ura nai izaten dute; eulia gozotara bezelma begi guziak aretan jartzen dituzte. Baña neskaxa batek mutil bati muzin egiten badio, zeñek muzin aundiagoa egin ibiltzen dira gañerakoak. Bestek utzitakorik ez dutela nai ta. Bestiak baño gutxiago ez dirala ta... gure mutil zarrari berriz, tripa aundia duala atera diote, ta auetan ez dabilke besterik! Tripa aundia badu ere... beria du beintzat! Ona nun datorkigun beste enplastua. Zerri begiratzen dio kaiku kirten horrek? Petral gaizto orrek, zer dezu umintzio oiekin guziakin. Zer galdu daizu gure leioan?

KONDO: Zerbait bai.

MAI KRUX: Zuri? Zuk galtzekoik lotsa besterik ez zenuen eta ori ondo galdua dezula esango nuke.

KONDO: Ez dezu ba orrelako gauzik esan biar.

MAI KRUX: Zu bezelako lotsagabe, maltzur batei ere ez?

KONDO: Ezta ere.

MAI KRUX: Egia diozu. Aundiagoak esan biar nizekizuke.

KONDO: Ez aundiagoak eta ez txikiagoak.

MAI KRUX: Tira, tira, naikua da. Ez daukat zurekin berriketan aritzeko gogorik. Zer galdu zaizu gure leioan?

KONDO: Zuen leioan? Senar emaztiak esan zenidaten, leiotik erakutsiko zenizkidatela... ollo xankuak eta arkume giltxurdiñak eta...

MAI KRUX: Esan bagenuen, esan nai genuelako izango da.

KONDO: Noski. Baña, ori zala illabete bada ta noiz baño noiz ikusiko ote ditudan egunero etortzen naiz.

MAI KRUX: Egunero etortzen bazera, etxian askorik ez dezulako izango da.

KONDO: Orrengatik ba. Baña, emen ere ez det zantzuik nabaitzen. Gaur ere ikusten dezu, leioa utsa, beti utsa...

MAI KRUX: Ta zu, illunabarrerako beintzat, beti-beti betia.

KONDO: Ez da zuk emanakin izango.

MAI KRUX: Nik eman... beoenua (*solimana*) emango nizuke nik...

KONDO: Eskerrik asko, baña, zeorrek ezagutu biar dezu ez zeratela itzeko jendiak.

MAI KRUX: Ez; zu izango zera itzekua.

KONDO: Ni bai; nik beti itza betetzen det. Zuek esanda ni gelditu nintzan onera etorriko bitzala bertso batzuek botatzera... ta orretaraxe nator, bertso bat botatzera.

MAI KRUX: Asta kirtzen alena. Gu geiago maxiatzeko goguan al zaude?

KONDO: Itzekua naizela ikusi dezazun.

MAI KRUX: Itza ta gañerakuak zuk beti txarrak.

KONDO: Zuek ez didazute leiotik erakusten ez ollo xakorik, ez arkume giltxurdunik, itzekuak ez zeratelako. Baña ni itzekua naiz eta agindu nizutena ez nuke ezerrengatik utziko bere gabe. Ez da ezerren gatik ere.

MAI KRUX: Tira, tira, naikua da. Ez nago ni zure astakeriak entzuteko.

KONDO: Baña, bere bertsua entzuteko bai ordia. Txorutzen gañera!

MAI KRUX: Gutxiago oraindik. Eta etorri zeran tokitik jua zintezke.

KONDO: Betsua botata.

MAI KRUX: Nik botako zaitut zu, ankaz gora azkar juaten ez bazera.

KONDO: Zuk ez dakizu zer dan bertsua botatzera etorri ta bota gabe juatia. Lorik ere ez nuke egingo.

MAI KRUX: Nik ez dakitana da, zu nola emendik bota.

KONDO: Bertsua botatakuan. Exeri zaitetz patxaran ta entzun lasai nere bertsua.

MAI KRUX: Au da ixtillua. Nai ta nai ez alproja onen bertsua entzun biar.

KONDO: Bai ba, orretara etorri naiz ta.

MAI KRUX: Ordu txarrian atarira azaldu naiz.

KONDO: Entzun zazu:

Orra bertso berri bat

Erromualdori

berreun kilo ditu

ezur eta mami

tripa aundia dauka

lerden eta guzi

elefantia dala

askotan dirudi

Ta mutil zar ori

tripa eta guzi

ezin dute ikusi

ta neskak igesi

or gelditu biar du

danen parregarri

MAI KRUX: Ta orain alde, alde emendik naiko astokeri esan dezu ta.

KONDO: Bai orain juango naiz. Baña ikusi dezu itzekua naizela.

MAI KRUX: Zu nola juaten zeran da, nik ikusi nai detana.

KONDO: Ikusi dezu. Ni beti itzekua. Romualdo ez zala ezkonduko esan nizuten eta mutil zar geldituko da.

MAI KRUX: Ori ikusiko degu.

KONDO: Ori bai; beti mutil zar ikusiko dezute. Alperrik ibiliko zerate. Ez da ori artuko duan neskatxik. Ez da "almonean" jartzen badezute ere.

MAI KRUX: Ez da ori zure egitekoa ta zuaz emendik.

KONDO: Ori, azkenian, txekorrak bezela perira eaman biarko dezute.

MAI KRUX: Nai degun tokira eramango degu, baña zu zuaz beintzat.

KONDO: Banua ba, beste bertso bat ere banuan baño barkatzen dizut. Ta gogoratu, Romualdo mutil zar geldituko dala.

MAI KRUX: Noiz bait ere jua n aiz. Erratzaren kirtena lukainka orren bizkarrian ezin austiak mintzen nau.

Laugarren irudia

MIEL MAI: Mai Krux! Baditut, baditut.

MAI KRUX: Bertso berriak al dituzu zuk ere?

MIEL MAI: Ez neskaxa berriak.

MAI KRUX: Berria edo zarra, oraintxe baten biarrrian gera ba.

MIEL MAI: Gogoratzen al zera, nola ibiltzen ziran gure etxe aurrian kurkuluxetan neska batzuek?

MAI KRUX: Pozorsarkako neskakin al zatoz berriz orain? Obe zenuke pixoialetako nesken bila asi.

MIEL MAI: Pozorsarkako neskak bai. Baña ori zala igango dira amar amabi urte. Azkenengo mixiotan ziran ta.

MAI KRUX: Orrelako zerbait izan biar du, bai.

MIEL MAI: Bat zan, beltzarana, oso berritsua. Amaika aldiz txuliatu genuen. Martxela uste det deitzen ziotela.

MAI KRUX: A bai. Intxaurrundokua. Orain bi edo iru urte Ameriketara jua n zan.

MIEL MAI: Ameriketara joan gabe egon zitekian ori ere. Orrela berriz ere ibiliko gera, neskaxa ezin billaturik.

MAI KRUX: Gure mutil zarraren zai ezin egongo zan ba.

MIEL MAI: Beste bat ba zan, txotil antzekoa, bildurti xamarra... Or bekua izan biar zua n.

MAI KRUX: A bai, Tomaxa. Ondo neska ona. Gaxua! Bost urte izango dira il zala.

MIEL MAI: Ori ere il gabe egon zitekian ba.

MAI KRUX: Bere gurasoak naiago izango zuten noski.

MIEL MAI: Bai guk ere.

MAI KRUX: Ta, orra. Neskax ori bizi izan balitz ez zigun ezetzik esango. Ziur nago Mari-Bixentak ez zigun ukatuko.

MIEL MAI: Ez noski. Ba zan beste bat ere, ile gorri, begi bizi, bera ere pixtia baño geiago etzan gelditzen. Gertruix edo orrelako zerbait.

MAI KRUX: Zaude, zaude; bazan orrelako bat.

MIEL MAI: Tomaxa edo dalako orrekin ibiltzen zan.

MAI KRUX: Bai, bai; oraintxe gogoratzen naiz.

MIEL MAI: Bai ba, Gertruix.

MAI KRUX: Urtiak dira, neskax ori nere begien aurrian ikusi ez detala. Nungua zan gero?

MIEL MAI: Tomaxakin, or Egurberri aldera artzen zun.

MAI KRUX: E!... Zaude... zaude...

MIEL MAI: Zer?

MAI KRUX: Bai, bai... ala da.

MIEL MAI: Zer gero.

MAI KRUX: Joxepa Akiñen alaba.

MIEL MAI: E!

MAI KRUX: Gertruix, bai; Joxepa Akiñen alaba zarrena.

MIEL MAI: Orduan andregai a badegu.

MAI KRUX: Oraintxe guzia gogoratzen naiz. Zortzi bat urte izango dira Joxepa Akiñaren aizpari Itxason alaba bakarra il zitzaiola; eta orduan Joxepa Akiñak bere alaba zarrena bializion. Orregatik ez nuan ikusten nik.

MIEL MAI: Baña, dala Itxason edo dala Legorretan, andregai a badegu beintzat.

MAI KRUX: Bai noski.

MIEL MAI: Au lasaitasuna nere buruak. Baña andregai a izan da nora begira egon gera?

MAI KRUX: NI beñepein, Gertruix ori zanik ere ez nitzan gogoratzen. Izan ere etxe artan orain ere, amabien bat seme alaba izango dira ta...

MIEL MAI: Beraz, Joxepa Akiña, seme alabaz, itzez bezin ugaria izan da.

MAI KRUX: Ainbeste ume dira etxe artan, bat alde egiña danik ez da ezakutzen. Ta ni Gertruix orretzaz ez nitzan gogoratzen ere.

MIEL MAI: Eskuetan euki ta nola geren buruak, ero batzuek egiñik, etxez etxe andregai billa ibili gera?

MAI KRUX: Aua zabaltzia naikua izan da...

MIEL MAI: Auko zulotik sartzen digutela kontu, ta gure alperrikako ibiliak.

MAI KRUX: Gure egun auetako zoramenak.

MIEL MAI: Denak bukatu dira. Orain ezetz esan diguten guziak bekaizkeriz irrikitzen ikusiko ditugu.

MAI KRUX: Batzuei ondo damutu biar zaie.

MIEL MAI: Baltaxarari, emendik aurrera, fu, egingo diogu.

MAI KRUX: Baita, Gaztainpeko Atanaxiri ere.

MIEL MAI: Lasai ta gogoz eztaiak izango ditugu. Au poza Mai Krux!

MAI KRUX: Au poza Miel Mai.

J. AKIÑA: Oso erniatua nator.

MAI KRUX: Gu berriz pozez txoratzen.

MIEL MAI: Oraintxe geunden biok, dantza asiko ote giñan. Ez da ala Mai Krux?

MAI KRUX: Izan ere, txoratzeko gaña badegu.

J. AKIÑA: Nik berriz berri txarrak dakarzkiz.

MAI KRUX: Guk ezin da obiak ditugu.

MIEL MAI: Txoratzekuak! Joxepa Akiña.

J. AKIÑA: Bada orrek ere, bestiak bezela esan dit, ez dagola mutil zar orrentzat.

MIEL MAI: Ez digu batere ajolik.

MAI KRUX: Zertarako degu neska xistriñ ori?

MIEL MAI: Zatar ori?

MAI KRUX: Ori ez bezelakua degu.

J. AKIÑA: E?

MAI KRUX: Andregaia badegu.

J. AKIÑA: Badezutela?

MIEL MAI: Guk biar bezelakua.

MAI KRUX: Poztuko zera noski, Joxepa Akiña?

J. AKIÑA: Ara. Zein da poza aundia dezuten, ez uste nik baño aundiagoa izango dezutenik.

MAI KRUX: Eta jakiten dezunian zein dan.

MIEL MAI: Orduan bai txoratuko zerala.

J. AKIÑA: Izan ere ez didazute esan oraindik nundik nora andregai ori arkitu dezuten.

MIEL MAI: Ara, eskuetan genukan.

MAI KRUX: Besua luzatu besterik ez.

J. AKIÑA: Ez zenuten ba, etxian gordeta eukiko?

MAI KRUX: Alatsu. Ara, guria izan bagenu bezela.

MIEL MAI: Ara, ez da kontuan eroriko.

J. AKIÑA: Nun zegon ba andregai ori?

MIEL MAI: Zerian... nun egongo zan... or... Legorretan... edo...

J. AKIÑA: Legorretan?

MIEL MAI: Ez, ez. Itxason.

J. AKIÑA: E? I... txa... son...

MIEL MAI: Ez da oraindik konturatu.

MAI KRUX: Itxason bai.

MIEL MAI: Itxason.

MAI KRUX: Zure alaba, emakumia.

MIEL MAI: Zu ez ziñan gogoratzen ere.

J. AKIÑA: Gure nexka...

MAI KRUX: Zure nexka bai.

J. AKIÑA: Alako pertxenta.

MIEL MAI: Guk biar bezelakua.

MAI KRUX: Orrelakotxia biar genuen.

MIEL MAI: Esan dizut amets bat.

MAI KRUX: Txoragarria.

J. AKIÑA: Alako liraña.

MAI KRUX: Bat, ta potxola, ponpoxa ta pinpiriña.

J. AKIÑA: Nere alaba gaxua... orra ba...

MIEL MAI: Ez al zera poztutzen?

J. AKIÑA: Orra, ba...

MAI KRUX: Zer gero?

J. AKIÑA: Ez nuke ba, gaizki artzerik nai baña...
MAI KRUX: E! Zer gaizki artu gero?
J. AKIÑA: Orra, ba... ez zait iruditzen...
MIEL MAI: Zer ez zaizu iruditzen?
J. AKIÑA: Ez nuke ba aserretzerik nai...
MAI KRUX: Baña. Zer esan nai dezu?
MIEL MAI: Zer dira kezka auek?
J. AKIÑA: Ez aserretu baña, ez zait iruditzen egokia gure nexka moñoña, orrelako mutil traketsarentzat.
MIEL MAI: Zer; ori ere, ba al degu?
J. AKIÑA: Ain nexka gaztia, orrelako mutil zarrantzat.
MIEL MAI: Ta zu al zera mutil trakets orrentzat etxez etxe andregai billa ibili zerana?
J. AKIÑA: Berriz ere, nai dezutenian ibiliko natzaizute, baña...
MAI KRUX: Zure eskuetan egon ezkeroko egiña zegola ta.
J. AKIÑA: Bai, noski; baña, nere alaba pertxenta ez daukat erdia eskuetan.
MIEL MAI: Nun ba?
J. AKIÑA: Biotzaren barren barrenian.
MAI KRUX: Danai esaten aiezn tokian egon ezkeroko itxu itxuan emango zenula.
J. AKIÑA: Aien tokian bai noski; ez ordia nerian...
MIEL MAI: Zuk ere ixkribientia biar al dezu?
MAI KRUX: Ez da ori egiten.
MIEL MAI: Lotsagabekeri bat da.
J. AKIÑA: Ama naiz!
MIEL MAI: Ni, aita!
MAI KRUX: Ni, ama!
J. AKIÑA: Ni, ama!

Bostgarren irudia

KONTXEXI: Nagusiak bialtzen nau.
MAI KRUX: Ixo. Zer dakarzu?
KONTXEXI: Nagusiak bialtzen nau, Bikario jaunarekin egon omen da, ta esan dio zuen berririk ez duela.
MIEL MAI: Gure berriak ez jakiteko obiak dira.
MAI KRUX: Ixildu zaite bada.
KONTXEXI: Eta bikario jaunarengana gaur bertan azaltzen ez bazerate, ez dala astirik izango ezkontzeko paperak garaiz izateko.
MIEL MAI: Zertara juango gera, andregairik ez badegu.
MAI KRUX: Zeori izango ziñake andregai polita.
J. AKIÑA: Mutil ori zuretzat izan liteken egokiena da.
MIEL MAI: (Besterentzat, e)
J. AKIÑA: Orrekintxe ezkondu biar dezu.
KONTXEXI: Ni?
J. AKIÑA: Ori bezelako mutil zintzo, artako, osasuntsurik ez dezu iñon arkituko.
MAI KRUX: Bata bestiarentzat egiñak bezela zerate.
KONTXEXI: Ni? Ori ez bezelako senargaia det nik. Erdoiztako txistularia... Esango nuke...
MIEL MAI: Orain ere, andregaiak txistua juaz igez egin digu.
MAI KRUX: Zuk ere ba al dezu?
J. AKIÑA: Atsegiñekoak zabilzate zuen senargaiarekin.
KONTXEXI: Nik bezelako txistulari jatorra duanak, ez dauka ixilik gordetzeko. Esango nuke...
MIEL MAI: Txistilaia bada, ezin ixil egon. Egia.
KONTXEXI: Egia da bezela.
MAI KRUX: Ta guk ezin andregairik arkitu degula ere bai.
KONTXEXI: Zer? Andregairik ezin arkitu dezutelako al zaudete orrela?
MIEL MAI: Orrela, bai.
MAI KRUX: Ez degu beintzat baten ere usmatzen.
MIEL MAI: Ez da erdi batenik ere.
KONTXEXI: Ez zazutela orrelakorik esan. Emakumia obeto dago Agiñako angula baño.

MIEL MAI: Besterentzat izango da. Guretzat ez beintzat.

KONTXEXI: Azkar arkituko nuke nik, beñepein, naikua nuke Gaztainpeko Atanaxiri esatia...

MAI KRUX: Ta guri bezela esango lizuke, ezetz.

KONTXEXI: Edo Intxaurgoiko Xixilik.

MAI KRUX eta J. AKIÑA: Ezetz.

KONTXEXI: Nik ezetz esango ez duana arkituko nuke ba.

HIRURAK: Ezetz.

KONTXEXI: Azkar gero. Zera... ez zera... A! Besterik ez bada, orra San Pelaioko Xalome.

HIRURAK: Xa... lo... me...

KONTXEXI: Orrek beintzat ez du ezetzik esango.

J. AKIÑA: Zanik ere ez nintzan gogoratzen.

MAI KRUX: Orain gauden eran, edozein eltzeko zorian gaude ba.

MIEL MAI: Gonak jazten dituana izan ezkerro beintzat bai.

KONTXEXI: Ori beñepein pozik asko ezkontzeko jarriko da.

J. AKIÑA: Baietz esango nuke.

MAI KRUX: Ta gure Tiburxio gizajua libratuko badegu edozeñei eldu biarren arkitzen gera.

MIEL MAI: Dala Xalome, edo Xalomon, eldu egin biar zaio. Azkar gero. Ezertarako betik ez degu.

MAI KRUX: Bai, baña; nun arkitu orain Xalome?

J. AKIÑA: Herrira jetxia da. Onera netorrela ikusi det. Nai izan ezkerro beriala ekarriko dizuet.

MIEL MAI: Zuaz ba tximistak egiten.

J. AKIÑA: Banua ba.

MAI KRUX: Ta azkar ibili.

MIEL MAI: Ia, orain, onek ere senargairen bat ore duan. Txistularia edo txorrogillea edo...

KONTXEXI: Txistularia nik. Txistulariak ez daude nai duen guzientzat.

MIEL MAI: Bai noski. Mutilla txistularia, neska dantzaria.

KONTXEXI: Ta nola ez? Ura asten danian; pipiri... pi.

MIEL MAI: Bai, orain txistuarekin eta ezkontzian zigorrakin dantzatu aziko zaitu.

KONTXEXI: Nere senargaiak? Ura dan bezin goxo, ezti, laztana...

MAI KRUX: Orain bai... ezkongaietan, au ere ala zan.

MIEL MAI: Nik ez nuen txisturik jotzen.

MAI KRUX: Ezin zenulako.

MIEL MAI: Ezkondata berriz, ez det zigorrik erabili.

MAI KRUX: Ezin dezulako.

KONTXEXI: Gure etxian ere ez da zigorrik erabiliko baña txistua bai, ezkondata ere piri... ri senar emaztiak dantzan ibiliko gera. Gure etxian beti danboliña.

MAI KRUX: Ezkondu ezkerro tanbolin ori baño, gaztañak erretzekua obia da.

J. AKIÑA: Emen dakarkit nik andregai.

MIEL MAI: Ia orain bukatzen degun.

MAI KRUX: Emen al zera?

XALOME: Bai *andlia*.

KONTXEXI: Orratx Xalome. Aurria artzen didazu. Pozik egongo zera orain?

XALOME: Bai, baña, ola lotsatu egiten naiz.

MIEL MAI: E!

MAI KRUX: Zer?

J. AKIÑA: Nola?

KONTXEXI: Lotsatu?

XALOME: Bai *zela*, *olixe* da ba.

MIEL MAI: Baña gure semiarekin ezkondu nai al dezu ala ez?

XALOME: A bai... pozik... pozik.

KONTXEXI: Bai noski.

J. AKIÑA: Banekian.

MAI KRUX: Baldin bait ere.

MIEL MAI: Ez degu ba geiago jakin bearrik, eta, orain Mai Krux, ezkongaiakin, Bikario jaunarengana jua biar degu. Datorrela Romualdo.

MAI KRUX: Romualdo!

MIEL MAI: Romualdo orain etorriko da, ta alkarrekin Bikario jaunarengana juango gera.

XALOME: Bai Jauna.

KONTXEXI: Bikariorengana juatia, ez zera noski.

XALOME: Ori ez... baña...

J. AKIÑA: Romualdo ez da iñon ageri.

MIEL MAI: Emakumia goiko gelan dago. Albarkari lokarriak jartzen gelditu da.

J. AKIÑA: Banua bada. Romualdo!!

KONTXEXI: Ala esango diot. Ta Xalome, zorionak. Orain bai pozik egongo zerala.

XALOME: Bai, oso pozik, oso pozik.

J. AKIÑA: Etxia, goikuaz bera jirabiatu det baña gure mutilla ez da agiri.

MIEL MAI: Goiko gelan begiratu al dezu?

J. AKIÑA: Ez dago an.

MIEL MAI: Non dago ba Romualdo?

KONDO: Ezpain okerraren ardandegian.

MIEL MAI: E?

MIEL MAI: Beste iru lagunekin an asi da tripakiak jaten. Zurrutian bapo. Aren eztarri zulotik sartzen dana...

MIEL MAI: (Orain ere beti bezela) Zuazkio eta dagoena dagon bezela utzi, ta datorrela onera, aidian, aidian gero...

J. AKIÑA: Beriala esango diot.

MIEL MAI: Ta ura etorri bitartian, barrura sartu gaitezen.

XALOME: Bai jauna.

KONDO: Ori al da emaztegai, gain gaiñeko ura?

MIEL MAI: Gaiñekua edo azpikua, onekin nik ere ixtilluak bukatu dizkiat.

KONDO: Ori mauka!!

MIEL MAI: Mauka edo maukondo, au egiña zioK Kondo.

KONDO:

*Gazterikan mutilla
enpliatzen ez bada
pasa biarko ditu
makiña bat kezka
Burutik zoraturik
andregairik ez ta
orra azkenerako
mutil zarren pesta*